

ALDI BATERAKO EZINTASUNARENGATIK PRESTAZIOA JASOTZEKO BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

PRESTAZIO GUZTIENTZAT

- Espainiakoak: NAN
- Atzerritarrak: Pasaportearen edo, dagokionean, zure herrialdeko indarrean dagoen agiria eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren ordaintzeko eskatzen duen AIZ.
- Ordainketa zuzenaren eskaera
- Ordaintzailearen datuen komunikazioa (145 eredu)

DOKUMENTU ESPEZIFIKOA

Erregimen orokorra (0111)

Kontingentzia Arrunt (*Contingencias Comunes*, CC) eta Kontingentzia Profesional (*Contingencias Profesionales*, CP) guztientzat: baja medikua hartu aurretiko hileko nominaren fotokopia (lanaldi partzialeko kontratuetan, aurreko hiru hileetako nominak).

Laneko Istripuen eskakizunentzat, enpresak parte Delt@ edo Conta sistemaren bitartez jakinarazi behar du.

Dokumentu espezifikokoak hurrengo kasuetan:

- Lan-harremanaren bukaera**
 - CC/CP**→Kaleratze kasuetan: Bidegabeko kaleratzearen onespina langileak kitoa edo kontziliazio-akta onartuta, abenentzia kasuan edo Ebazpen Judizialak aginduta. Enplegu-erregulazioko espediente kasuan, Enplegu-erregulazioko espedientearen kopia, Lan Agintarien sarrera zigiluarekin.
 - CC**→ Kontratua amaitutzat eman aurreko 180 egunen kotizazioen enpresako ziurtagiria(k). Azken kontratua 180 egun baino gutxiagokoa bada, aurreko ziurtagiriak aurkeztu edo, ez daudenean, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko kotizazio-oinarriena.
- Enpresaren arauen urratzea**. Bi kasuetan:
 - Salaketa Lan Ikuskaritzan.
 - Prestazioa eskatzen duen interesdunaren sinatutako zinpeko deklarazioa.
 - Enpresaren ziurtagiria non interesdunak ABE noiztik ez duen jasotzen, eta gizarte segurantzetan dedukziorik noiztik egiten ez diren adieraziko den; edo urratze hori agertzen den Laneko Ikuskaritzaren urratze-akta.
- Ordainketa eskuordetu salbuetsia**. Bi kasuetan:
 - Deskontuak zein egunetik aurrera egingo ez diren zehazten duen enpresa-ziurtagiria.
- Epeak iraungitzea (ABEko 545 egun)**. Bi kasuetan:
 - Azken nominaren fotokopia, non enpresak ordaindutako azken eguna agertuko den.
- GSNiren alta ez-adostasuna (GSLO 128. art.)**. Bi kasuetan:
 - Enpresaren ziurtagiria lanpostura itzuli deneko datarekin.

Artistak (0112) eta Zezenketen profesionalak (0114)

- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean aurkeztu ez diren Jardueren adierazpena (TC4/6), eta ekitaldien justifikanteak (TC4/5).
 - Mutuak Gizarte Segurantzako Diruzaintzari eskatuko dio baja medikuaren aurreko 365 egunetako kotizazio-oinarrien inguruko ABEn Oinarri Arautzailea ziurtatzen duen txostena.

Merkataritza ordezkarriak (0111)

- Baja medikua hartu aurretiko hileko nominaren fotokopia (lanaldi partzialeko kontratuetan, aurreko hiru hileetako nominak).

Etxe-zerbitzarien sistema (0138)

- Enplegu emailearen ziurtagiria, edo baja medikuaren aurreko hilaren ordainagiria, non etxe-zerbitzariaren kotizazio-oinarria adieraziko den.

Nekazaritzako Sistema Berezia (0163)

- Baja medikua hartu aurretiko hileko kotizazio dokumentuaren fotokopia (TC2/8), edo aldizkako kontratu finkoa denean, baja medikuaren aurreko hiru hileetako. Ez dagoenean, enpresaren ziurtagiria aurkez daiteke, edo hari dagozkion nominak.
- Langilearen deklarazio edo adierazpena, non Jarduera ezaren sisteman barneratzea ziurtatzen den (0161). Jarduera eza kotizatzen bada, baja medikoaren aurreko bi justifikanteak aurkeztu behar dira. Jarduera ezarengatik kotizatzen ez bada, ziurtagiri horretan adierazi beharko da.
- Lan kuotaren kotizazioa egiteko: Mutuak enpresari eskatuko dio benetako jardunaldien ziurtagiria hile guztietan.
- Kontratuaren azkentzea (CC soilik)**→Kontratua amaitutzat eman aurreko 180 egunen kotizazioen enpresako ziurtagiria(k). Azken kontratua 180 egun baino gutxiagokoa bada, aurreko ziurtagiriak aurkeztu edo, ez daudenean, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko kotizazio-oinarriena eta benetan lan egindako lan egunena.

Langile autonomoak (0521 eta 825)

- Baja medikua hartu aurretiko hileko kotizazio-buletinaren fotokopia.
- Jardueraren egoera-adierazpena
- Zorra geroratzen bada, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren ebazpena aurkeztu, non geroratze hori onesten den.
- CC Medikuen bajaren partea
- CP Delt@ edo CoNTA bitartez izapidetutako istripu-partea

Besteen Konturako Itsas Langileen Erregimen Berezia 2 eta 3 taldeak

- Erregimen Orokorren dokumentu berak

ALDI BATERAKO EZINTASUNAREN ORDAINKETAREN INGURUKO INFORMAZIO OSAGARRIA:

Epeak:

Prestazioa hilaren 1 eta 5 bitartean ordainduko da, beti ere hurrengo baldintzak betetzen badira:

- Aurkeztu dira dokumentu guztiak, honekin batera aurkituko duzun egutegian markatutako hilaren aurreko egunaren aurretik. (Enpresaren urraketaren ondorioz edo nekazaritzako sistema bereziaren ondoriozko ordainketetan izan ezik)
- Ordainketa eskakizunak osoak izan behar dira, ongi beteta egon behar dute eta datuak eguneratuta izan behar ditu; haietan aldaketaren bat egonez gero, erakunde honi jakinarazi behar zaio.
- Kontingentzia arrunta: Berreste-parteak hilean behin aurkeztu ahal izango dira entitate honek horretarako zehaztuta duen egutegiaren arabera.
- Ordaintzeko aldia aurkeztutako baja berresten duten parteen arabera izango da. Adierazitako dataren ondoren aurkeztutako parteak hurrengo hilean ordainduko dira.
- **Berreste-partearen eredu berrientzat**: ordaintzeko data hurrengo azterketa medikuari egongo da baldintzatuta.

Jarraibideak:

- Ordainketa egin ahal izateko, mutuaren zerbitzu medikuek egindako informazio, proba eta zitazioei erantzun beharko diezu, segimendu eta kontrol ahalmenen barruan.
- Zehaztutako azterketa medikuetara arrazoirik gabe aurkeztuko ez bazina, jasotzen ari zaren diru-laguntza kautelaz etetea eragingo du.
- Prestazioari buruz zalantzarik edo galderarik baduzu, hitz egin eskakizuna izapidetu duen mutua honen Lurraldeko Zuzendaritzarekin.